

Amelia Jauregiri elkarrizketa.

Baztarrika Baserrria (Gabiria), 2025eko otsailaren 21an.

IM: Zein da baserriarekin eta artzaintzarekin duzun harremana?

AJ: Beno, ni txiki txikitatik, eskolan hasterako jada ardi tartean nengoen. Aita ibiltzen zen ardiekin, gero eduki ditu bai ardiak eta bai behiak. Gehienez, ni neu hasi arte izan da ardiak eta behiak eta gero aita mendia joaten zen ardiekin eta gu hemen gelditzen ginen etxean amarekin eta behiak eramaten genituen eta gero hortik aurrera ba beti egon dira gure etxean ardiak. Ardiak eta baserriko martxa berdin berdin. Ez artzaina soilik, orain gehiago espezializaturik gaude ardiarekin baina orduan izaten zen denetarik, soro lanak eta denak egin behar izaten ziren. Garia eta artoa eta horiek guztiak ezagutu ditut nik, nola egiten ziren baserrian, nola jasotzen ziren eta horiek denak. Eta gero baita ere ibili nintzen, hau da, gure aita eta ama arten, gu lanerako egin ginenean ba eskolako zerak bukatu eta horiek denak egin genituenean ba beno, segituan etorri zitzaidan tailer batetatik ea lanera joango nintzen, hemen bertakoa, eta horrela hasi nintzen ba tailerrean diru pixka bat ateratzeko nire gastuetarako, zeren gainera baserrian lana egiteko artean aita eta ama oso sasoiko zeuden eta beno, ba gu atera izan ahal ginen ba beste leku batzuetara lanera. Lagungarri bat ez? Eta horretan hasi nintzen. Gero etorri zan Baserri Eskola, Zabalegi zegoen orduan. Han egin nituen bi ikasturte baita eta gero pixka batean segitu nuen tailerrean baina jada jarri nintzen baserrian gurasoei laguntzen. Gero, ezkondu ginenean, baserrira ezkondu nintzen eta geuk erosi genuen artaldea. Orduan hasi nintzen neure kabuz artzaintzan eta gaztagintzan. Eta gero ba hemen zeuden ukuluak oso txiki geratu zitzaizkigun eta gero ba ukulu handiagoa egin genuen eta hor aritu naiz nire alabak eta suhiak hartu duen arte.

IM: Ibilbide luze honetan, egon al da aldaketarik zuen baserrian?

AJ: Bai, noski, dudarik ez. Aldaketa ikaragarria egon da, zeren lehenago artzain bat zen, esan duzuna, industrializazioa, horrek eman zion baserriari egurra denok dakigun bezala. Esan dizut, niri etxera etorri zitzaidan lanera joateko eta hemen denei, baina nik esaten nuen, bai, ni orain lanera joango naiz baina hemen segituko dut. Baina beste jende asko lanera irten zen eta baserrria abandonatzea, ba lehenago abandonatu edo, ez ateratzea baserritik bere bizimodua, ba hori, erabaki hori hartzearekin jada aldatzen da, aldatzen da ingurua, jateko moduak, baita jakiak ere. Joaten da dena aldatzen hori. Eta gero ba ardi lekuak ere bai, zeren lehenago esaten nizuen bezala, artzainen bizitza zen ardiak goizean hartu eta artzain joatea, makila hartu eta txakurra edo dana dalakoa, zeren zeuden lurrak eta horiei ba kasu egin behar zitzaien besteena ez joateko eta etzanetara, orain itxita daukagu eta orain egiten dugun bezala. Horrek erreztea eman du baino lehen zen, egon behar zenuen ardien inguruan beti, eta horrek ba asko erreztu du beste lan batzuk egiteko.

Ba eguraldi txarra dagoenean ez duzu egon beharra han hotzarekin eta euriarekin eta txingorreakin eta, oso gogorra zen artzaintza hori eta hori asko aldatu da orain, beste era batera. Bai barruan, bai jana emateko era, dena dago aldatuta, baita zelaia denak hesiekin itxita daude orain, partzelak ardiak aldatzen joateko, horiek denak aldaketak dira.

IM: Esan genezake, hortaz, baserriak beti egon direla prest aldaketetarako?

AJ: Baserritarroi beti eman zaigu oso itxik garela, *república independiente*, baina gure etxeko giltzak beti egon dira ateak zabalik denentzako eta ez zait iruditzen. Esango dizut, bai, diferentek garela. Orain ere baserritarrak eta kaletarrak desberdinak gara, nahiz eta ematen duen ezetz, baina bai, zeren baserria ez dago aldatzerik zentzu batzuetan. Ez dago aldatzerik zentzu batzuetan dena bizirik daukazulako, animaliak, landareak... dena bizirik dago eta bizirik dagoen guztiari kasu egin behar diozu, bakoitzari bere lekuan egoten. Ez da torloju-multzo bat bezala, botatzen dituzu baztarrera eta han egoten dira edo botatzen dituzu kaxa batetara eta han egoten dira. Eta hori ez du inork aldatuko eta beti izango gara ezberdinak. Baserriko umeak ere, nahiz eta kaletartzen joan, ezberdinak dira. Bai heriotza ulertzeko, jaiotza, heriotza, denak leku batetan daude hemen, ez? Joan zaitez ukuilura eta arkume bat jaiotzen ikusten duzu baina beste bat aldamenean akabatzen ikusten duzu eta hori da, ez, bizimoduaren zera. Hori ere ez da aldatuko. Orduan, nik esaten dut kaleko jendea, orain, Santa Agedak pasa berri dira, eta esaten dugu: "lurra esnatu behar dugu, lurra esnatu behar dugu, lurra esnatzen da". Lurra ez, jendea esnatu behar dugu, jendea esnatu behar dugu. Zeren oso azaletik ikusten da. Kaleko jendek bai nahi du, baina nahi horretan gauza asko egin behar ditu kaletarrak ere eta hori oso zaila da orain aldatzea. Ez da baserria bakarrik aldatu, kalea ere kristoren abiaduran doa eta orduan, nik ba, hola ikusten ditut aldaketak eta zerak.

IM: Zein da emakumearen protagonismoa baserrian?

AJ: Emakumeek, zeran... protagonismorik batere ez emakumeek baserrian. Baina lana denek. Baserri batetan emakume bat ez baldin badago segituan etorriko da behera. Gizon bat alargun geratzen bada, askoz ere, beno, badira gizonak oso ondo moldatzen direnak... Eta ez da ideiak eta horiek denak hartzeko ere, emakumeak askoz ere zera gehiago dauka, grina handiagoa esango nuke nik. Zirt zart gizonezkoa bai, hasten da Donostiatik bueltan gauza bat, zera egiteko. Protagonismorik, orain arte emakumeek, orain ere ez asko. Lehen esan duguna, azaletik bai, "emakume zera egin behar da... jo ba eskerrak zuei...", eskerrak zuei baina orain ere emakumea dago hor. Izan ere hori aldatzen ez da erreza. Ikusi dugu asko, edo ni ibili naiz taldeetan, bai sindikatuan bai artzain elkarteetako zeran, eta ez da erraza zeren emakumeek doble lan ditu. Etxean, etxekoak denak, eta kanpokoak, erdibana eo erdiak baino pixka bat gehiago. Eta gero, erabakiak eta harten diren lekuetan egoteko beti gizonezkoa da, hura beti pronto egoten da edozein lekuetara joateko. Baina emakumeak umeak direla, edadetuak direla eta hori dena, eta baserria aurrera ateratzeko

iristen ez bazaio beste lekuren batera, edo tabernan batera edo ordu batzuk sartzerara, baita hori ere. Orain ez dakit hainbeste den baina nire laneko urteetan gure taldeko emakume asko zorrak pagatzeko joan behar izaten ziren aste-bukaeretan eta pixka bat laguntzeko beste diru sarrera bat ekartzera. Baina hori oso zaila da. Baina gizonaek txipa aldatzen ez badute ez dago aldaketarik zergatik sinistu egin behar dute ba “hemen gu bizi gara eta hemen nire andrea ez balego, nire alaba ez balego, zer izango litzateke hau?”, eta beste lekuetan berdin. Erdia eta erdia oraindik ez da, gutxiagorekin nahikoa da berdintasuneko zeran, baina hori nola dago? Badago lege bat, badago estatutu bat, baina emakumeak ez dira hainbeste azaltzen.

IM: 1991an Emakume Baserritarraren Elkarte sortu zenuten, zergatik eta zertarako?

AJ: Elkarte sortu genuen, sindikatua jada bazegoen, esan duzun bezala. Sindikatu horretan geunden emakume batzuk eta beno, ikusten genuen, hau da, sindikatu horrek ikusarazi zigun zer mugimendu zegoen baserrietan. Orduan ikusi genuen denok problema berdina genituela: Gizarte Segurantzari ez zuten emakumeek eta esan duguna, ateratzen ziren azoka edo enkarguak egitera edo bestela han geratzen ziren. Orduan, esan genuen, mugimenduren bat eman beharra dago honi zergatik langileak dira eta langile osoa izateko, hasteko, Gizarte Segurantzari egon behar zara, ez? Eta horrek eraginda sortu zen elkarte hori.

IM: Zer eman diozu artzaintzari eta zer eman dizu honek zuri?

AJ: Beno, biok izan gara, hau da, nik oso gustura egin dut artzaintzan eta ikusten dut nire ibilbidea nahiko bitxia edo ona izan dela, aurrerapenak eta beti eon naiz prest edozer frogatu egiteko, edozein ikerketa egiteko, beti zabalik egon naiz. Gure teknikoei eta gure zeari, ba beti, hobekuntzarako, latxa ardiaren hobekuntzarako eta bai edozer ikerketa edo zera egin behar izan dugunean hor egon da nire artaldea, hasiera hasieratik, eta nik uste dut artzaintzari ematea bai dela hori.

IM: Mamia-Esentzia liburuan ere parte hartu duzu, nolakoa izan da esperientzia?

AJ: Lehenengo sustoa galanta, zergatik etorri ziren aukeratu nindutela ba zeran eta nik hor egon behar nuela bai eta bai, liburu bat egiteko eta pentsatu zutela gastronomia aldetik eta gazta zera eta, eta ez gaztagintzan bakarrik, baita artzaintzan ere erreferente bat izan nintzela. Eta nik esate nuen “hauek zer esaten ari dira?”. Gero gainera erderaz egin behar nuela, buf... Esan nuen, pentsatuko dut, erakusteko bada bata edo bestea, beno. Eskertuta azken batean, zeren kanporatzea gure bizimodua eta gure ekintzak eta gure zerak beti dator ondo, eta baiezkoa eman nuen eta atera da. Liburu ederra da. Eskertuta egia esan.

IM: Nola ikusten duzu emakumearen etorkizuna baserrian eta artzaintzan?

AJ: Emakumea gustatuko litzaidake egotea, hots, egiten ari den lana eta lan hori egiteko dauden bideak ondo jakitea, hau da, informatuta egotea, ondo, gauza guztiekin. Zergatik desinformazio handi bat dago eta bide horiek ondo eramateko eta ondo egiteko, edukitzea tresna batzuk behar diren bezalakoak, hori eraman ahal izateko. Hori eskertuko nuke alde horretatik. Eta artzaintzan orain ere kristoren lana egiten ari dira emakumeak. Artzaintzan gaztagintza sartzen da hor baita ere. Eta ez dago ikusi besterik gure Idiazabal jatorrizko zera zein mailatan dagoen, eta hori dena da emakumearen bitartez, nahiz eta ez den azaltzen horrela leku askotan. Baina hori bai dela emakumeak atera duen zera bat, hola ateratzea eta egitea. Eta hori jarraitzea ba horrela, hobekuntzak bai baino zainduz baita nondik gatozen, zer garen eta alde horretatik.